

BATASUNA..... ALKARTASUNA

Landeia (1965.12)

Azken denbora ontan, mota guztietako abertzaleak, "batasuna" aipatzen ari dira. Eta gure eginbear politikoan, batasuna premiatsuena dala diote. Orregatik, bein ta berriro, ELA delakoaren jokabidea azaldu bearrean gaude; bere oraingo politikan oiñarri garrantzizkoa baida.

Sozialistak izanez burgesia-txikia dalakoak batasunari eman nai dion esanai utsa, ezin degu onartu. Orrek euskaldunen artean, batasunarako bidetik apartatzen du. Guretzat, batasuna helburu politiko bat da; klaseen arteko alkartasuna; ori da "frente nazionala". Eta alkartze orren helburuak reboluzio demokratikoa deritzaionarenak dira. Bein ta berriro esango degu, alkartze ori, jokabide bakarra iduritzen zaigula, euskal-batasuna lortzeko; eta aurrerapen bakarra faszismoa eta Capital aundi monopolistaren aurka jokatzeko. Bakoitzak bere aldetik ez luke indarririk izango.

Batasunari buruz, ez dira orduan, egoera moralak edo tremendistak artu bear; zein dan jokabide egokiena, argi eta garbi nabaitzea eta ezagutzea baizik. Eta emen iru gauza aipatu bear ditugu:

- 1) Gure burgesia eta P.N.V. dalakoak, guretzat duten gorratasuna. Oien naikeria: Euzkadiko langille-klasearen askatasuna zapaldu; gure politikan gero ta geiago zerikusterik dadukan klasea, burgesiaren morroi batean biurtu. Eta ortarako, eurak bere aldetik burgesia txiki zentralistekin (PSOE) alkartzen dira.
- 2) Gure burgesia-txikiaren batzuentzat (eroenentzat, eta desegiñak daudenentzat) "batasuna", euskaldunaren konzienzi onari eskea bat besterik ez da; mutil zintzo batzuen arteko konponketa, izan balitz bezala. Esate baterako, or daude orain gutxi azaldu diran orri batzu (ETA-BAI).
- 3) Euskal-alkartze demokratikoa langilleen helburuaren aurka dijoala, neofaszistak, sozial-kolonialistak, eta Espaiñiako sasi-ezkertiarrak, mota guztietako zakurkeriak sartu nai diguten teleka. Ori, langilleen askatasuna saltzea izango litzakela; eta beste aldetik reboluzioa atzeratzen duala diote.

Egoera onen oiñarriak, ba dakizkigu zeintzuk diran. Ainbeste zozokeriak helburu bat besterik ez dute (eta au, beste batzuen artean, "nacionalismo popular" deritzaionean azaltzen da): euskal-alkartze demokratikoa lortu ez dedilla; demokraziarako eta sozialismorako egiazko aurrerapen bakarrak diranak geldi-azi, aiek atzeratu ditezen eta Euzkadin, "Estado Centralista unitario" delakoaren zama, betirako izan dadin. (Egoera orrek iraun dezan, "Capitalismo de Estado" deritzaionekin egin leike ere. Orrek, "fuerzas productivas"

diralakoak, burgesia-txikia españolista baten menpean jarriko lituzke; eta aren partido sasi-sozialisten menpean (P.c.E., p.s.o.E., P.c.E. txinatarra bere "Eta-Zutik" izen-ordearekin, etab.). Eskerrak gaur egun, ori ez leikela posible.

Gure errian danak dakite, diogun egoera ori (Estado Centralista unitario), Capital aundia monopolistaren diktaduran posiblea dela bakarrik. Eta ola sozial-kolonialismoa, "nacionalismo popular" etab. diralakoaren faszismoa, argi eta garbi nabaitzen da. Bai-ta guardizibil eta burgesia aundiakin duten alkartzeko objektiboa ere.